


Bidebieta



Lapurretak

Joan den asteartean, hilak 2, Gipuzkoako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Koordinakundearen egoitzan lapurretak egiten salatu ziren. Leihotzat buskatu zuten barrura sartu ahal izateko. Hala ere, ez zuten ezere eman. Seguru asko, lapurretak alarria piztuta koan alde egin zuten. Kiroldegian, bestalde, lapurretak egin zuten duela hilabete. Bertako langileek jakinarazitakoaren arabera, lapurrak gauean sartu ziren bertara eta dirua eramateaz gain, zenbait tresna elektronikoko hondatu zituzten. Lapurrak Bidebieta ikaste etxe inguruan ere ibili dira. bi alditan, lehenengoan ordenagailu bat eramane zuten, eta bigarrenean, duela bi aste, leihoa hautsi baina ez zuten ezere eman.



Hondeamakinak lanean

Duela gutxi, hondeamakinak lanean hasi ziren Gomistegiko orubeetan. Garai batean Lasa enpresa egondako toki horretan, 112 etxebizitza egingo dituzte. Era berean, Kontadores gaztegunearen eta Zentek enpresa egoitzaren ondoko lur zoruan beste 58 etxebizitza eralkiko dituzte. Plaza bat eta autoentzako bideak ere egingo dituzte inguru horretan.

Urmaelak hustu dituzte

Eliza ondoko parkeko urmaelak hustu egin dituzte. Udal Parke eta Lorategi Sailean adierazi digutenez, urmaelak zenbait konponketa egin ondoren beteko dituzte. Bidebietarrak maiz kexatu izan dira, ura aspaldi berritu gabe eta zikin zegoelako.



Autobus geltokia, aurrerago

Auzo itxerako autobus geltokia lekuz aldatuko dute lasaier. Gaur egun, geltokia gaitolindor ondoan dago. Inoiz gutxi horretan zenbaitan egiten ari dira, baina batek birbilgunea egiten ari dira. Besteak Kontadoresko etxe berriaren aurrean, espaloia jarri zuten ari dira. Lanak bukatuta koan, autobus geltokia orain 100a baino aurrerago — Kontadoresko etxeen aurrean — izango da.



LEHIAKETA

Hamar sarriera ditugu Pikor taldearen "Zapaldu marra" antzeziana ikusteko. Emanaldia hilaren 19an, ostirala, izango da Egia kultur etxean 20:00etan.

Sarrierek eskuratzeko, 943 467181 telefono zenbakira deitu behar da hilaren 15ean, 12:00etatik aurrera.



Joan den asteko irabazleak
Bide Ertzean taldearen kontzertua:

- Eñaut Beloki
- Eneko Mayo
- Peio Sarasola
- Goro Telletxea
- Benat Ralla

"Muzikiren bidai harrigarria" antzeziana:

- Ane Loidi
- Carolina Stampa
- Daniel Larre
- Jon Stampa
- Jon Antxia